

BILBON

Hasi da jaia!

Atzo iritsi zen Marijaia Bilbora. Ongietorria egiteko, jaien protagonista diren konpartsak, Santurtzaino hurbildu ziren, Marijaia Bilbora bide zuzenetik ekartzeko. Arratsaldeko 4.30 eta bildu ziren konpartsetako kideak La Naja-ko geltokian, eta tren ez egin zuten Santurtzainoko bidea. Jaiak oraindik hasi ez baziren ere, ez zen txantxa eta barrerik falta izan tren bidaia berezi honetan.

Santurtzira joan, berehala Santurtzitik aldegeteko. Marijaia hartu ondoren seietan abiatu ziren berriro Bilbo aldera, baina orain garraibide gutziz desberdinean. Nonbait tren ez du gehiegi atsegin Marijaiak, eta erosoago aurkitzen da ur gainean. 'Poltrona' deituriko unti nagusian etorri zen Marijaia Nerbioitik gora, eta garai batekoek esango luketen legez, «konpainia onean».

Agintariak, Josu Ortuondo, Bilboko alkatea buru, izan zituen lagun 'Poltronan', ohi duen bezala, apaindura ugariz hornituta zegoen untzian. Agintariek gain, nolabait jaietako agintari diren Miren Barrutia 'txupineroa' eta Pello Zubiria 'pregoilaria' ere ondoan izan zituen, eta konpartsa bakoitzeko kide bana ere han izan ziren.

Nerbioiko ur zikinetatik gora, 'Poltronaren' inguruan makina bat unti abiatu ziren. Bertan, konpartsetako kideak eta fanfarriek bidaia alaitzen zutela, zarata artean Bilboko Udaletxeraino heldu zen komitiba koloretsua. Bilbotar jator bezala, Marijaia arku zurigorriaren azpitik

pasa zen, gero Udaletxera abiatzeko. Bertan, Bizkaiko diputatu nagusia, Ezkerraldeko alkate, eta bertan bildutakoen ongiatorria jaso ondoren, Arriagarantz abiatu zen.

Kostatu zitzaion gure Marijaiari Arriaga antzokira heltzea! Ez zen erraza izan Arenaleko txosnetan bildutako jendetzaren artean pasatzea. Konpartsa, fanfarre, agintari, txupinero eta pregoilariaren laguntzaz Arriagara iritsi zen azkenean Marijaia.

Pello Zubiria EUSKALDUNON EGUNKARIAko zuzendariak pregoia irakurri ondoren, Josu Ortuondo alkateak Arriaga inguruan bildutako milaka bilbotar eta kanpotik etorritako jaizale eta gautxoriak agurtu zituen. Miren Barrutia Hau Pittu Hau konpartsa txupineroak suzuria piztu bezain pronto, Bilboko Urak marea igo arazi zuen.

Zortzi egun eta gauetako jaien metxa piztuta zegoen jada. Gorputzak astintzeko ordua heldu, eta bapatean, alde zaharra bete bete egin zen. Txosnetako musikaren lehen doinuek jendea erakarri zuten, jai eta parranda egarria asetu nahian zebiltzan bilbotarrak.

Astebetetz bada ere, Bilbok bere ohizko itxura aldatuko du. Dibertsio mota guztiek izango dute beren toki. Bertsolari eta euskal dantzek Santiago plazan izango dute eszena-tokia. Txosnek, urtero bezala, Arenala josi dute. Etxebarriako parkea txiki eta handien paradisia izango da aste osoan, bertako barraka eta zirkoarekin ●



JOSE SIMAL

Hauxe da patxaranaren perfila

- ▶ Urriaren 2. hamabostaldian jasotako basaran freskoekin egina.
- ▶ Zapore eta usain fruitatua.
- ▶ Errubi gorri kolorea.
- ▶ Buenaventura Belasko jaunak 1831an egiten zutenaren berdina-berdina.

Esentzia eta koloregaririk gabe

